

# ¡ Z U R E K I Ñ ! .

(NERE ARREBA-RI)

¡Justacho! ¿non gaude gu?

¿Bizi gera emen?...

¡Ez neška nerea, ez,

Or zurekiñ, orchen!

Bizirikan gaituzu

Zerura jasotzen!

. . . . .

Aingeruak zu gabe

Triste omen zeuden,

¡Zabiltza or goietan

Berakiñ jostatzen!

Baña ¡ai!... zéñen bakar

Geran gu arkitzen!

. . . . .

Gure echean beti

Zutaz itz egiten,

Beti ¡ai! zu billatzen,

Beti zuri deitzen,

¡Justacho! ez gaituzu

Íñoiz eranzuten!

. . . . .

—¡Ošaba! ¿zertan zera

Zu orla penatzen?

¿Aztu al zaizu nola

Zenidan esaten

Zerurako giñala

Guztiyok jaiotzen?

¿Ez dezu len bezela

Zerua maitetzen?

¿Ez dezu len bezela

Orañ errezatzen?

¿Ez dizkatzu Ješus-i

Mušuak ematen?

¿Zergatik zera bada

Orrela penatzen?

¿Zeruetan nagola

Ez dezu ikusten?—

. . . . .

¡Eskuen artera zait

Burua erortzen!...

¡Barkanazazu ¡Jauna!

Bazaitut aztutzen!

ANTONIO ARZÁC.

1889-ko Aingeru-Guardakoa-ren egunean.